



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 13ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren hamahiruan arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: LEKUMBERRY Xantxo

Saioko idazkaria: IÑARRA François

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 9a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 9a

1. ERABAKIA: HARBERGARAKO ARTZAIN SARBIDEAREN KONPONTZEKO, MARTINALDEKO KORRALEAREN KONPONTZEKO ETA MARTINENA BORDARAINOKO ARTZAIN PISTA BATEN SORTZEKO DIRU LAGUNTZA ESKAERA (8.4 nomenklatura)

Auzapezak Baigura mendiguneko bazkalekuetarako pistaren konpontze eta segurtatze proiektua aurkeztu du: Harberga pistaren profilatzea, harriztatzea eta betoinatzea, Martinaldeko korralearen konpontzea eta Baigurako bazkalekuetarako artzain pistaren sortzea.

Auzapezak azaldu du proiektu horren aztertze gogoeta bat eramana izan dela Euskal Herriko Laborantza Ganbarako artzaintza zerbitzuarekin.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik:

KONTUAN IZANIK, interesgarria dela Baigurako bazkalekuetara kabalen eramaten segitzea,

KONTUAN IZANIK, horretarako artzainei ekipamendu egokiak eskaini behar zaizkiela,

KONTUAN IZANIK, 99 715 euro ZK-ko aurrekontua,

EHLGko artzaintza zerbitzuari AGINDU DIO proiekturako laguntza teknikoa eskaintza eskaini diezaion obra-agintariari,

ESKATU DU proiektua 2025eko artzaintza programako “artzaintza inbertsioak” neurri gisa onartzea,

DIRU LAGUNTZAK ESKATUKO DIZKIE, Akitania Berria Eskualdeari eta Europari,

Honako finantzazio aurreikuspen plana atxikitzea **ERABAKI DU**:

- Finantzazio tasa: %70
- Dirulaguntza: 69 800,50 euro
- Autofinantzamendua: 29 914,50 euro

ERABAKI DU, diru laguntzak onartzen bazaizkio eta Herriko Kontseiluak onesten badu, lanen honako egutegia:

Hastapena: 2026ko urtarila
Bukaera: 2028ko abendua

ENGAIATZEN DA, proiektuaren autofinantzamendu zatia bere gain hartzera,

AGINDU DIO, Auzapezari, erabaki horien gauzatzea eta baimena eman dio horretarako administrazio dokumentu oro izenpetzeko.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, ekintza horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapiddeen egiteko.

Jardunean diren kideak: 15
Presente direnak: 14
Adierzi dire bozkak: 14
ALDE: 13
KONTRA: 1
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 13an

Auzapeza:
Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 14an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.